

**“BASQUETOIR TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA - AGENCIA VASCA DE TURISMO, SA” TURISMO
SOZIEIATE PUBLIKOAREN ESTATUTUAK**

I. IITULUA.- IZENA, HELBIDEA, HELBURU SOZIALA ETA IRAUPENA.

1. artikulua- “BASQUETOIR TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA - AGENCIA VASCA DE TURISMO, SA” izenarekin Persona Bakarreko Merkataritza Sozietate Anonimo bat eratu da, Estatu hauen eta haren gobernu- eta administrazio-organoek lege hartutako erabakien arabera arautuko dena, eta, horietan jaso ez den orotan, Sozietate Anonimoei buruzko Legea eta horrekin bat datozen arauak zein aplikatzekoak zaizkion gainerako xedapenak beteko dituena.

2. artikulua- Honako helbide sozial hau ezarri da: Urkixo Zumarkalea 36, Bilbo (Bizkaia).

Egoitza soziala herri bereko beste toki batera eramaten bada, hori ez da aldatetzat hartuko, eta Administrazio Kontseiluak edozein unetan har dezake erabaki hori, legez.

Gainera, organo horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldeko beste edozein tokitan Sozietatearen bulegoak, sukurtsalak, agentziak, ordezkariak edo delegazioak ezartzeko, lekualdatzeko, aldatzeko edo kentzeko erabakia har dezake, horien eskumenak, zeregina eta funtzionamendua zehaztuz.

3. artikulua- “BASQUETOIR TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA - AGENCIA VASCA DE TURISMO, SA” Sozietateak bi helburu izango ditu:

Batetik, merkatuaren egoeraren arabera estrategikoak eta lehentasunezkoak diren estatuko eta nazioarteko merkatuetan, Euskadi sustatzeko beharrezko diren sustapen-, merkaturatze- eta publizitate-ekintzak gauzatzea; eta, halaber, Eusko Jaurilaritzan turismoaren arloan eskumenak dituen organoak agindutako leku eta foroetan.

Eta, bestetik, euskal sektore turistikoaren lehiakortasuna hobetzeko beharrezkoak diren ekintzak bultzatu, abiarazi eta burutzea. Eusko Jaurilaritzan turismoaren arloan eskumenak dituen organoak diseinatu eta planifikatuak izango dira ekintza horiek.

Sozietateak bere xedearen barruko ekintzak osorik edo zati batean gara ditzake zeharkako eran, xede berdina edo antzekoa duten Sozietateetan parte hartuz.

4. artikulua- “BASQUETOIR TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA - AGENCIA VASCA DE TURISMO, SA” Sozietateak iraupen mugagabea izango du, eta eratzen den egunean hasiko da jardunean.

II. TITULUA.- KAPITAL SOZIALA.

5. artikulua.- Sozietateak laurogeita hamar mila (90.000.-) EUROko kapital soziala izango du, laurogeita hamar (90.-) akzio izendunek osatua, eta akzio bakoitzak mila (1.000.-) EUROko balio nominala izango du, akzioak korrelatiboki zenbakituta egongo direla BATETIK (1.-) LAUROGEITA HAMARRERA (90.-) bitarte, biak barne.

Akzioak sinatuta eta ordainduta daude.

Akzioak izendunak dira, eta titulu indibidual zein multipleek ordezkaturiko dituzte.

III. TITULUA.- SOZIETATEAREN ORGANOAK.

6. artikulua.- Honako organo hauek arautuko dute Sozietatea:

- A) Batzar Nagusia.
- B) Administrazio Kontseilua.

A) BATZAR NAGUSIA

7. artikulua.- Batzar Nagusiak sozietatearen borondatea lantzen eta adierazten du, dagozkion erabakiak hartuz.

8. artikulua.- Batzar Nagusiak Ohikoak eta Ezohikoak izan daitezke.

Ohiko Batzar Nagusia ekitaldi bakoitzaren lehen sei hilabeteen barruan nahitaez bilduko da, aldez aurretik deialdia eginda, sozietatearen aurreko ekitaldiko kudeaketa ikuskatzeko eta, hala badagokio, aurreko ekitaldiko kontuak onartu eta emaitzaren aplikazioari buruz erabakitzeko.

Aurreko atalean jasotakoarekin zerikusirik ez duten Batzarrak Ezohiko Batzar Nagusiak izango dira.

Dena den, Batzar Nagusiaren deialdia ohikoa izan bada ere, Batzarraren eskumeneko edozein gairi buruz eztabaidatu eta erabakiak hartu ahal izango ditu.

9. artikulua.- Batzar Nagusiak edozein administratzaile edo kontseilari izenda dezake askatasun osoz, legez onartutako erabakiak banan-banan betearaz dituzan.

Izendapen hori izan ezean, Administrazio Kontseiluko presidenteak betearaziko ditu Batzar Nagusiaren erabakiak.

Nolanahi ere, xede horretarako, edo orokorrean, ahalmena eman zaion pertsonaren esku utz daiteke erabakien betearazpena.

B) ADMINISTRAZIO KONTSEILUA.

10. artikulua.- Administrazio Kontseiluak bere gain hartuko du Sozietatearen administrazioa; gutxienez hiru kide izango ditu, eta gehienez hamabi.

Batzar Nagusiaren eskumena da Administrazio Kontseiluko kide kopuru zehatza zehaztea eta kide horiek izendatu eta kargugabetzea, edozein unetan.

Kontseilarien izendapena onarpenaren uneaz geroztik hasiko da indarrean, eta Merkataritza Erregistroan aurkeztu beharko da inskribatzeko, hamar eguneko epean onarpenaren egunetik zenbatzen hasita.

Kontseilaria izateko ez da beharrezkoa izango bazkide izatea. Pertsona fisikoak eta juridikoak izan daitezke bazkide. Pertsona juridikoek pertsona fisiko bat izendatu beharko dute karguaren berezko eginkizunak betetzeko.

11. artikulua- Kontseilariaren edo administratzaile orokorraren izendapenak lau urteko iraupena izango du. Horiek behin edo gehiagotan berrautatzeko aukera izango da, iraupen bereko aldietarako.

Epe hori igarota, hurrengo Batzar Nagusia egiten denean iraungiko da kontseilari edo administratzaileen urteen araberako izendapena, edo Ohiko Batzar Nagusia egiteko legezko epea gainditzen denean.

Izendapenen kargu-uztea edo iraungipena gertatu ahala egingo dira berritzeak edo berrautapenak.

12. artikulua.- Sozietate Anonimoei buruzko Legearen, Euskal Autonomia Erkidegoko eginkizun publikoak betetzeagatiko bateraezintasunei buruzko abenduaren 20ko 32/1983 Legearen eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenen arabera bateraezinak diren pertsonak ezin izango dira Sozietatearen administratzaile izan, eta ezin izango dute beste edozein karguren ardura hartu ere.

13. artikulua- Batzar Nagusiak egiten ez badu, Sozietatearen Administrazio Kontseiluak presidente bat eta idazkari bat hautatuko ditu, eta gainerako kideak bokalak izango dira. Presidenteorde bat edo bi eta idazkariorde bat edo bi izendatzeko aukera ere izango du. Izendapenean erabaki liteke idazkaria eta idazkariordeak kontseilariak ez izatea, eta kasu horretan bileretan hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez botoa emateko eskubidea.

Presidenteak edo idazkariak fisikoki edo juridikoki jarduteko ezinduta badaude, presidenteordeei eta idazkariordeei jarduteko agindua emango diete, eta beroriek kalifikatuko dute ezintasuna, beren jardueraren arazoak hirugarrenen aurrean justifikatu behar izan gabe.

Batzar Nagusiak betiere, eta Administrazio Kontseiluak, baldin eta hark izendatu baditu, adierazitako karguetan diharduten pertsonen ordez Organo bereko beste pertsona batzuk askatasunez izendatzeko aukera izango dute.

Batzar Nagusiak erabakitzen badu Administrazio Kontseiluko presidentea eta presidenteordeak, eta, hala badagokio, idazkaria eta idazkariordeak berrautatzea, Kontseiluaren baitan alde zuzenetik zeuzkaten karguetan jarraituko dute.

14. artikulua.- Administrazio Kontseilua Sozietatearen interesetarako beharrezkoa den guztietan bilduko da, presidentearen ekimenez edo bi kontseilariren edo gehiagoren eskaerei erantzunez.

Deialdiak pertsonalak izango dira, eta Administrazio Kontseiluko kide guztiei gutuna, telegrama, faxa, mezu elektronikoa edo beste edozein egiaztagiri bidaliko zaie deialdiaren berri emateko, gutxienez bileraren eguna baino bi egun lehenago.

Deialdia ez da beharrezkoa izango baldin eta, kontseilari guztiak bilduta egonik, aho batez bilera egiteko erabakia hartzen badute.

Kontseilari bakoitzak beste edozein kontseilariren esku utz dezake ordezkaritza eta botoa, presidenteari horren berri ematen duen gutuna bidaliz. Ordezkaritza hori idatzia izango da, eta bilkura bakoitzerako berezia izango da.

Kontseiluko presidenteak baimena emango du bileretan kontseilariak ez diren pertsonak parte har dezaten, gai-zerrendaren gai jakin bati buruzko informazioa emateko, baina pertsona horiek ez dute botoa emateko eskubiderik izango.

15. artikulua.- Erabakiak hartzeko, legean aipatutako gehiengoak hartuko dira kontuan.

Administrazio Kontseiluaren eskumenak Batzorde Betearazlearen edo kontseilari delegatuaren esku etengabe uzteko eta kargu horietan jardun behar dutenak izendatzeko, Kontseiluko kideen bi herenen aldeko botoa beharko da, eta Merkataritza Erregistroan inskribatu arte erabaki horrek ez du inolako eraginik izango.

Botazioetan berdinketa izanez gero, presidentearen botoak ebatziko du.

Administrazio Kontseiluaren erabakiak betearazteko eskumena Kontseiluko edozein kideren esku utz daiteke, baita kontseilariak ez diren idazkariaren eta idazkariordearen esku ere.

Hori guztia kontuan hartuta Kontseiluak aukera baduela ahalordeak edozein pertsonaren esku uzteko.

16. artikulua.- Administrazio Kontseiluak Batzorde Betearazle baten edo kontseilari delegatu baten edo batzuen esku utz ditzake bere eskumenak.

Alabaina, artikulua honetan jasotako eskumen-uztea ez da bideragarria izango baldin eta Legeak edo estatutuek horretarako bide ematen ez badute.

17. artikulua.- Administrazio Kontseiluari dagokio Sozietatea estatuan edo atzerriko edozein tokitan ordezkatzea, Sozietatea bideratuz, zainduz eta zuzenduz, helburu sozialarekin zuzeneko edo zeharkako lotura duten negozio eta gai guztiak ebazteko, eta bereziki:

1.-Mota guztietako ondasunak erostea, saltzea, trukatea, eta, beste edozein tituluren bitartez, erostea eta besterentzea; maileguak egitea, kredituak irekitzea sozietatearen ondasunen hipoteka-bermearekin edo bermerik gabe; mota guztietako errentamendu-kontratuak adostea, industria-arlokoak barne; fidantzak, bahiak,

hipotekak eta gainerako eskubide errealak eratzea, aldatzea, atzeratzea eta bertan behera uztea. Industria-errentamenduak egitea.

2.- Balio-gordailuak, efektu publikoak, kredituak, metalikoa edo beste edozein ondasun eratzea eta kentzea, eta funts sozial guztiak edukitzea, baita Gordailuen Kutxa Orokorrean eta mota guztietako bulego publikoetan ere.

3.- Mota guztietako merkataritza-sozietateak eta sozietate zibilak eratzten laguntzea; sozietate horien funtzionamendua eta eratzea arautzen duten estatutu eta itunak onartzea; sozietateen kapitala eta edozein ordezkari-ekintza edo -titulu harpidetzea, egokitzat jotzen duen kantitatean, bai eratzean bai kapitala handitzeko erabakia hartzean; sozietateei, harpidetutako kapital-kuota ordaintzeko, eskudirua, balioak eta ondasun higigarriak, higiezinak eta edonolakoak ekartzea; edozein karguren titularrak izendatzea, kargu horietan jarduteko, eta xede horretarako Erakundearen esku gera daitezkeen karguak onartzea; Administrazio Kontseiluen, Batzar Nagusien edo beste edozein organo sozialen bilkura guztietan eskumen osoz parte hartzea, itun eta estatutu sozialen arabera bidezkoa denean; eta dagokion eskubidea betetzea, mugarik gabe.

4 - Mota guztietako banku-eragiketetan Sozietatearen izenean sinatzea eta jardutea; kontu korranteak edo kreditu-kontuak ireki edo ixtea, eta kontu horiek erabiltzea txeki, taloi, transferentzia edo beste edozein bitartekoren bitartez; kanbio-letretan esku hartzea, horien igorle, onartzaile, berme-emaile, endosu-emaile, endosu-hartzaile edo edukitzaile gisa; mota guztietako kreditu- edo mailegu-eragiketak ireki eta adostea, bermearekin edo bermerik gabe, eta kreditu edo mailegu horiek bertan behera uztea; bermeak eskatzea; mota guztietako zorrak edo obligazioak onartzea; funts, errenta, kreditu edo balioen transferentziak egitea, dirua igortzeko edo mugitzeko edozein prozedura erabiliz; kontu-saldoak eta azken kitatzeak onartzea; gordailuak eta fidantzak eratzea eta kentzea; kontuak osatzea, aldaketak egitea, eta abar; hori guztia Espainiako Bankuan eta Banku Ofizialean zein aurrezki-banku pribatuetan eta Administrazio publikoaren edozein erakundetan.

5.- Lehiaketa eta enkanteetan parte hartzea eta mota guztietako kontratuak egitea, egokitzat jotzen dituen baldintzak jarritz, eta kontratu eta enkante horiek zuzentzea, aldatzea, hutsaltzea eta amaitzea. Teknologia eta laguntza teknikoa erosteko mota guztietako kontratuak egitea, askatasunez adosten dituen baldintzak ipiniz, baita, oro har, patenteekin, markekin, modeloekin eta industria-jabetzako gainerako eskubideekin zerikusia duten kontratu guztiak, Sozietatea ordezkatzuz Industria Jabetzaren Erregistroan zein horri lotutako gainerako nazioko zein nazioarteko gainerako erakundeetan.

6.- Sozietatea ordezkatzeko gai eta egintza guztietan (administratiboak, judizialak, zibilak edo merkataritza- zein zigor-arlokoak) Administrazioen eta mota guztietako erakunde publiko eta pribatuen aurrean, baita beste edozein jurisdikzioaren (zibila, administratiboa, lanekoa eta abar) aurrean eta edozein instantzian ere, sozietatearen eskubideak defendatzeko dagozkion mota guztietako ekintzak eginez, epaiketan eta epaiketatik kanpo, ahalorde egokiak emanez Sozietatea Epaitegi eta erakunde horien aurrean ordezkatu eta defenda dezaten. Mota guztietako administrazio-errekurtsoak egitea. Sozietatea ordezkatzeko mota guztietako erregistro publikoetan

7.- Sozietateko langileak izendatzea eta bereiztea, horien ordainsaria finkatzea, eta lana antolatu eta banatzea

8.- Ahalorde orokor edo bereziak ematea, askatasun osoz erabakitzen dituen eskumenez hornituak, Batzar Nagusiaren eta Administrazio Kontseiluaren erabakiak publiko egitea barne, salbu eta Legeak esku-uztea edo ahalordetzea galarazten duen kasuetan Ahalordeak ezeztatzea, horiek ematen dituen pertsona edo organoa edozein izanik ere.

Ahalorde horiek pertsona juridiko edo Sozietateen esku ere utz daitezke, ematen zaizkien eskumenak bete ditzaten beren ahalordedun edo ordezkarien bitartez

Zerrendatu berri ditugun eskumenak ez dira mugatzaileak, adierazpen soilekoak baizik, eta hortaz, Batzorde Nagusiarentzat esanbidez gordetzen ez diren eskumen guztiak Kontseiluarenak direla ulertu behar da.

IV. TITULUA.- SOZIEATEAREN EKITALDIA

18. artikulua.- Sozietatearen ekitaldia urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.

V. TITULUA.- EMAITZEN APLIKAZIOA ETA BALANTZEA

19. artikulua.- Sozietatearen ekitaldi ekonomikoak urte naturalaren arabekoak izango dira. Fundazio-eskitura egilesten den eguna izango da eragiketak edo lehen ekitaldia hasteko eguna.

20. artikulua.- Urtero-urtero, dagokion urteko abenduaren 31 aipatuz eta legezko epeen barruan, Balantzea osatuko da, irabazi eta galeren kontua, etekinak banatzeko proposamena eta azalpenezko memoria barne.

21. artikulua.- Etekinen eskuragarritasunei eta erreserben nahitaezko eratzeari buruzko legezko xedapenak eta akziodunek alor horretan hartutako erabakiak betetzeari utzi gabe, Batzar Nagusiak erabaki bezala banatuko dira mozkin likidoak, Administrazio Organoaren proposamenari jarraiki.

VI. TITULUA.- DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

22. artikulua.- Legean aurreikusitako edozein arrazoiengatik desegingo da Sozietatea.

23. artikulua.- Behin desegitea erabakita, likidatzaileak izendatuko dira, kopuru bakoitian. Legezkoa izango da likidazioa Administrazio Organoko kideen ardura izateko erabakia hartzea. Kopuru bikoitia bada, horietako bat kargugabetuko dute, gehiengoaren erabakiari jarraiki, eta, bestela, zozketa bidez.

Likidazio-prozesu osoan, Legean aurreikusitako arauak beteko dira. Legez onargarria denean, enkante-prozedura baztertzeko aukera izango da ondasun higiezinak besterentzean.